


Asociación de Familias
de Menores Transexuales



Adingabe Transexualen
Familien Elkarte

BADIRA ZAKILA DUTEN NESKAK ETA BULBA DUTEN MUTILAK

Diren bezala onartzea eta maitatzea da behar dutena



www.chrysaliseh.eus

info@chrysaliseh.eus

688 728 055

Arreta zerbitzua. Informazio puntua eta elkargunea. Arreta familiarik familiara.
Aholkularitza sexologikoa. Baliabide didaktikoak. Familien arteko topaketak. Komunikazio birtualeko taldeak.
Formakuntza. Elkar laguntza. Familien sarea.



Chrysalis Euskal Herria

Haurren transexualitatea.

ULERTZEAREN ETA LAGUNTZEAREN GARRANTZIA

Neska edo mutila izatearen kontzientzia da sexu-identitatea. Prozesu mentalekin zerikusia dauka, eta ez da genitaletan, ez kromosometan, ez hormonetan aurkitzen. Neska edo mutila da norbera, hala dela badakielako.

Kasu gehienetan, mutilek zakila dute, eta neskek bulba. Horregatik, jaioberriaren genitalak begiratzen dira bere sexua zein izango den *asmatzeko*, ohartu gabe ezin ebatzi ahal izango dugula kontu hau, haurrak, bi urteren bueltan, hitz egiten hasi eta “neska naiz” edo “mutila naiz” esaten duen arte, bere burua modu batean edo bestean izendatuz.

Batzuetan mutiltzat hartutakoa (zakila duelako), neska izaten da (hala dela adierazten duelako), eta neskatzat hartutakoa (bulba duelako), berriz, mutila. Zakila duten neskek dira; bulba duten mutilak. Beraien gorputzak ez daude erratuta, ezta beraien adimena ere. Horrelakoxeak dira. Bular zapala edo aurpegian ile asko edo XY kromosomak dituzten emakumeak badiren modu berean, edota bular handiko edo ahots altua duten gizonak. Izan ere, guztiok ditugu bi sexuen ezaugarriak, neurri desberdinetan.

Transexualitatea ez da gaixotasun bat, ezta buru-nahasmendu bat ere. Ez da erabaki bat, ezta hautu bat ere. Giza aniztasunaren beste adierazpen bat baino ez da. 1000 pertsonako kasu 1eko [1] prebalentziaz hitz egiten dute datu berriek.

Egoera honetan dagoen haurrak behar duena zera da: bere hurbilekoek berari entzutea, bera den moduan onartzea eta maitatzea (gainontzeko haur guztiak behar duten moduan, noski).

Egungo ikerketek argi eta garbi erakusten dute alde handia dagoela beraien identitatea onartzearen eta ukatzearen artean:

- Haurtzaroan beren identitatea ukatu zitzaizen helduen suizidio saiakera-tasa % 41ekoa [2] da (populazio osoarena % 1,6koa izanik)
- Haien identitatea errespetatzen direnean, berriz, haur eta gazte transexualen bizi eta zoriontasun kalitate indizeak, adin bereko populazio ez transexualaren antzekoak dira [3][4].

Ez dugu nahi gure seme-alabek haurtzaroa gal dezaten. Ez dugu nahi suizidioaren itzal iluna haien etorkizunean.

Diren bezala garatu ahal izatea nahi dugu. Jo-lastu, ikasi eta hazi ahal izatea. Irribarre egin dezaten nahi dugu. Beren gaitasunak ahalik eta modu zabalenean garatu ahal ditzaten. Bizi ahal daitezen. Izan ahal daitezen.

Horretarako, haien bidaide eta laguntzaile izatea erabaki dugu gurasook. Eta eskutik behar ditugu abentura honetan hezkuntza komunitateak, osasun arloko profesionalak eta inguru sozial osoa.

Gure seme alaben bizi dago jokoan.

[1] “The Incidence and Prevalence of SRS among US Residents” Horton, 2008

[2] “Injustice at Every Turn. A Report of the National Transgender Discrimination Survey”, Grant et al., 2011

[3] “Mental Health of Transgender Children Who Are Supported in Their Identities”. Olson et al. 2016

[4] “Young Adult Psychological Outcome After Puberty Suppression and Gender Reassignment”, Vries et al., 2014